

A ring-tailed lemur is perched on a thick wooden branch. It has a white body with grey and black stripes on its tail and limbs. Its eyes are a striking orange-brown color. The background shows a stone wall and some ropes, suggesting an enclosure. The entire scene is framed by a yellow border.

EUSKAL  
HERRIKO

**ZOO ETA  
AKUARIOPEN  
AZTERKETA**

**NOR**

EUSKAL HERRIA  
ANTIESPEZISTA

*EUSKAL HERRIKO*  
**ZOO ETA**  
**AKUARIOAN**  
**AZTERKETA**

**NOR – 2019**

2019an Euskal Herriko eta Kantabriako zoo eta akuarioak bisitatu eta ikertu ditugu. Animalia eta instalazioak aztertzeaz gain bideo eta argazkietan jaso dugu ikusitako guztia.

Informe honek argazki eta ikus-entzunezko erreportajeetan adierazten direnak frogatzen dituzten datuak biltzea du helburu. Horretarako NOReko kideek bertako langileekin egindako elkarrizketak, albaitaritza informeak eta kazetaritza artikulua erabili ditugu, besteak beste.

# TESTUINGURUA

Bisitaturako zentroak 8 izan dira. Sei Euskal Herrian: Donostiako Aquariuma, Miarrizteko Itsas Museoa, Getxoko akuarioa, El Karpin, Basondo, eta Senda Viva; eta beste 2 Kantabriako (Espainia) Cabarceno eta Santillana del Mar-eko zoologikoa. Azken bi hauek jasotzen duten euskal bisitari kopurua ikusita hartu da erabaki hau. Santillana del Mar-eko zoon eskuorriak euskaraz eskaintzen dituzte eta Cabarcenok Euskal Herriarekin duen erlazioa ezin ukagarria da.<sup>1 2 3 4</sup>

Getxoko Aquariumak 2020ko urtarrileko 31n itxi zuen. Bizkaiko Foru aldundiak finantzazioa moztu eta gero udalak ez zuen nahi izan alde bakarrez jarraitu zentro hau finantzatzen.<sup>5</sup> Bertan zeuden animaliak Xixon eta Donostiako aquariumetara eraman zituzten.<sup>6</sup> Basondo eta El Karpinek haien buruak animalien babeslekutzat aurkezten badituzte ere zoo modura funtzionatzen dute. Basondo AIZaren (Asociación Iberica de Zoos y Acuarios)<sup>7</sup> parte da, gainera.

Zoo eta aquirioen azterketa hau bi oinarritzko ideiatan sostengatzen da: gizakiz besteko animaliak interesak dituzten eta sentitzeko gaitasuna duten norbanakoak direla<sup>8</sup> batetik, eta haiekiko berdintasun-printzipio etikoarenpean jokatu behar dugula.<sup>9</sup>

---

**1** El 16,67% de los visitantes de Cantabria en 2019 fueron vascos, ICANE. <https://www.icane.es/data/hotel-survey-pernoctations-travelers-distribution-origin/results>

**2** 'Pese al pinchazo del domingo por la influencia de la lluvia y a que hoy era día de trabajo en Euskadi, ya que por cercanía muchos de los visitantes a las instalaciones cántabras son de esta zona' Alto Campoo, Cabárceno y Fuente Dé cierran el Puente con más de 24.100 visitas, Europa Press, 2019/12/09 <https://www.europapress.es/cantabria/noticia-alto-campoo-cabarceno-fuente-cierran-puente-mas-24100-visitas-20191209200945.html>

**3** 'Por procedencia, los visitantes de Madrid fueron los más numerosos (1.730), seguidos de los llegados de País Vasco (1.629)' Las instalaciones de Cantur recibieron 33.433 visitantes durante la Semana Santa, 20 minutos 2012/04/09 <https://www.20minutos.es/noticia/1364074/0/>

**4** 'El Parque de Cabárceno acogerá un encuentro de familias de policías y agentes residentes en Euskadi' El Correo. 2010/08/02 <https://www.elcorreo.com/vizcaya/20100802/mas-actualidad/politica/parque-cabarceno-acogera-encuentro-201008021604.html>

**5** 'Getxo aprueba el cierre del Getxo Aquarium el 31 enero' Deia, 2019/12/23 <https://www.deia.eus/bizkaia/eskuinaldea/2019/12/23/getxo-aprueba-voto-pnv-pse/1008042.html>

**6** 'Los peces y los corales del acuario de Getxo se van a San Sebastián y Gijón' El Correo, 2020/01/28 <https://www.elcorreo.com/bizkaia/margen-derecha/aquarium-getxo-cierra-20200127140134-nt.html>

**7** 'Los parques de ocio y los zoos solicitan el Gobierno de España un plan para proteger el empleo' COPE.es, 2020/04/3 [https://www.cope.es/emisoras/navarra/navarra-provincia/pamplona/noticias/los-parques-ocio-los-zoos-solicitan-gobierno-espana-plan-para-proteger-empleo-20200430\\_701714](https://www.cope.es/emisoras/navarra/navarra-provincia/pamplona/noticias/los-parques-ocio-los-zoos-solicitan-gobierno-espana-plan-para-proteger-empleo-20200430_701714)

**8** 'The Cambridge Declaration on Consciousness', 2012 <http://fcmconference.org/img/CambridgeDeclarationOnConsciousness.pdf>

**9** 'El trato a los animales no humanos, una consideración moral', Clara E. Paniego Burillo, El Salto, 2018/09/18 <https://www.elsaltodiario.com/el-rumor-de-las-multitudes/el-trato-a-los-animales-no-humanos-una-consideracion-moral>

# ANIMALIA KOPURUA ETA ERREKUPERAZIOA

Zentro hauetan, gutxienez, 16370 animalia daude itxita.

ZENTROA	NORBANAKO KOPURUA
Miarritzeko Itsas Museoa	8200 <sup>10</sup>
Doostiako Aquariuma	5000 <sup>11</sup>
Cabarceno	920 <sup>12</sup>
Zoo Santillana del Mar	2000 <sup>13</sup>
Senda Viva	800 <sup>14</sup>
El Karpin	500 <sup>15</sup>
Getxo Aquarium	300 <sup>16</sup>
Basondo	150 <sup>17</sup>
<b>GUZTIRA</b>	<b>16370</b>

Zentro hauetako langileei egindako galderen arabera urtean ez dituzte 20 animalia baina gehiago bernaturatu guztien artean. Azken urteetan publiko egin den kasu bakanetako bat Donostiako akuariu-mak 2018an sendatu eta gero itsasora bueltatu zuen 'Donosti' dordokarena da<sup>18</sup>. 2019an Miarritzeko itsas Museoko akuarioko langileen arabera, kostaldera ailegatutako hiru foka sendatu eta berriz askatu zituzten itsasoan.

Animaliak jaso, zaindu, sendatu eta berriz espazio naturaletan askatzea haien helburua dela dioten arren, erakusgai dauden animalien 0,12arekin baino ez da hori gertatzen.

<sup>10</sup> 'Confinement : l'aquarium de Biarritz s'organise pour assurer les soins' Franceinfo 2020/04/04 <https://france3-regions.francetvinfo.fr/nouvelle-aquitaine/pyrenees-atlantiques/biarritz/confinement-aquarium-biarritz-s-organise-assurer-soins-1811114.html>

<sup>11</sup> 'Museo Oceanográfico-Aquarium de San Sebastián', Nekatur <https://www.nekatur.net/Lugar-interes.aspx?lang=eu-US&Id=200>

<sup>12</sup> '25 años con Cabárceno' El Diario Montañés, 2015/08/16 <https://www.eldiariomontanes.es/cantabria/201508/15/anos-cabarceno-20150815162536.html?ref=https:%2F%2Fwww.google.com%2F>

<sup>13</sup> Zoo Santillana del Mar [https://www.zoosantillanadelmar.com/index.php?option=com\\_content&view=article&id=71:grulla-coronada&catid=36:africa&Itemid=102](https://www.zoosantillanadelmar.com/index.php?option=com_content&view=article&id=71:grulla-coronada&catid=36:africa&Itemid=102)

<sup>14</sup> Senda Viva <https://www.sendaviva.com/animales/>

<sup>15</sup> 'El centro de acogida de animales salvajes, Karpin, renueva su oferta' Eitb.eus <https://www.eitb.eus/es/radio/radio-euskadi/programas/reportajes/detalle/5473108/el-karpin-el-centro-acogida-animales-salvajes-renueva-su-oferta/>

<sup>16</sup> Guia del Ocio <https://www.guiadelocio.com/vizcaya/ninos/getxo/getxo-aquarium>

<sup>17</sup> 'Basondo, el refugio de la fauna silvestre' Txikaletos, 2016/11/7 <https://txikaletos.com/?p=205>

<sup>18</sup> La tortuga 'Donosti' vuelve al mar tras recuperarse de sus heridas, El Diario Vasco, 2018/06/15 <https://www.diariovasco.com/gipuzkoa/tortuga-donosti-aquarium-recuperacion-20180615190546-nt.html>

# HEZKUNTZA

Gure ikerketaren arabera, pertsona bakoitzak minutu gutxi batzuk pasatzen ditu animalia bakoitza begiratzen. Zenbait ikerketak diotenaren arabera, bisitariek ez dute 30 segundo baino gehiago pasatzen espazio bakoitzean.<sup>19 20</sup>

Kaiola, akuario edo espazioen kanpoaldean oso informazio eskasa ematen da. Jatorria, bizi itxaropena eta beste zenbait datu ematen dira. Bisitatu ditugun zentro guztietan egoera berdina aurkitu dugu.

Ikusi dugunean oinarrituta zoo eta akuarioek animaliak objektifikatu eta entretenimendurako erabili ditzakegularen ideia zabaltzen dela ikusi dugu. Stephen Kellert, Yale unibertsitateko ikertzailearen arabera "zoook naturarekiko maitasuna zabaldu ordez gizakiak animalien gainetik gaudelaren ideia zabaltzen dute".<sup>21</sup>

2007an AZAk, (Zoo eta Akuarioen Elkartea) argitaratutako ikerketa baten arabera, zoook sustatzen duten faunarekiko begiruneak ingurumenarekiko babesa sortzen duela baieztatzen zuen. Emoryko Unibertsitateko ikertzaile talde batek ikerketa aztertu zuenean ordea emaitzak handituak zeudela ondorioztatu zuten eta bertan adierazten zuten zehazki: "zoologikoe eta akuarioek jarrera aldaketa, hezkuntza edo bisitarien kontserbaziorako interesa sustatzen dutela frogatzen duten datu konplexu edo bereziki iradokitzailerik ez dago."<sup>22</sup>

Horren adibide argia da Basondo zentroan existitzen den unxi eta akurien gela. Umeei zuzendutako espazioa da non animaliak ikutu, hartu eta mugitu ditzaketen. Ez dute animaliei buruzko informaziorik ematen; ez dago zentroko arduradunik ez monitorerik. Jostailu gela bat da.

---

**19** 'An Introduction to Zoo Biology and Management' Paul A. Rees, 2011

**20** 'Encyclopedia of Marine Mammals' William F. Perrin, Bernd Würsig, J.G.M., 2009

**21** 'Kinship to Mastery: Biophilia In Human Evolution And Development' Stephen R. Kellert, 1997.

**22** 'Researcher questions what zoos truly teach' Carol Clark, 2010 [https://www.emory.edu/EMORY\\_MAGAZINE/2010/summer/marino.html](https://www.emory.edu/EMORY_MAGAZINE/2010/summer/marino.html)

# ANIMALIEN JATORRIA ETA SALEROSKETA

Espezieen kontserbazioa aitzakiatzat hartuta, zoek eta akuarioek gatibu dituzten animaliak ugaltzera bultzatzen dituzte, bisitariak erakarri eta haien atentzioa bereganatzen duten animaliak direlako<sup>23</sup> batetik eta haiekin beste zoo batzuekin trukeak egiten dituztelako bestetik. Donostiako Aquariumak argi eta garbi adierazi du hori, marrazoek izandako azken kumeak jaio direnean: "puede llegar un momento donde tengamos una población de tiburones demasiado alta, y tengamos la necesidad de realizar «intercambios con otros acuarios»".<sup>24</sup>

Zooetan jaiotzen diren animaliak bizi osorako gatibutzapean bizitzera behartzen dituzte. 2005etik, hainbat foka kume jaio dira Miarritzeko Itsas Museoan, eta beste akuariora mugitu dituzte. 2005ean, Naia deitu zuten kumea jaio zen, eta Britainiako Brest hiriko akuariora eraman zuten. 2019ko azaroan, berriz, 2009an jaiotako Noella mugitu zuten Miarritzetik Santanderrera, hango akuariora. Informazio hau itsas museoak berak eskaintzen duen paneletan aurkitu dugu. Donostiako Aquariumak hainbatetan egin ditu publiko animalien jaiotzak. Inoiz ez da aipatu animalia hauek itsasora bueltatzeko intentziorik. 25

Animaliak harrapatu eta zoo edo akuarioetara garraiatzen dituzten enpresa ugari existitzen dira. Basondo, Cabarceno, Santillanako zooak, Senda Vivak, Miarritzeko Itsas Museoak eta Donostiako Aquariumak esplotazio zentro hauen interesak defendatzen dituzten loobyen bazkide dira elkarre hauen bitartez: EAZA (European Association of Zoos and Aquaria), AIZA (Asociación Ibérica de Zoos y Acuarios), WAZA (World Association of Zoos and Aquariums), EUAC (European Union of Aquarium Curators) edo UCA (L'Union des Conservateurs d'Aquariums). Elkarre hauek erlazio zuzena dute animaliak bahitu eta saltzen dituzten enpresekin, eta hainbatetan elkarre hauen babesle ofizialak dira ere, EUAC-ren web orrian adierazten den bezala.<sup>26</sup> Donostiako Aquariumak kantauri itsasoan bizi diren animaliak harrapatu eta gatibutzara eramaten dituen zerbitzu propioa du.<sup>27 28</sup>

Kudeaketa arrazoiengatik osasuntsu dauden animaliak hiltzea legala da eta EAZA eta WAZAren praktika onargarrien gidan jasota dagoen praktika da. 'Culling' deitzen zaio animaliak sistematikoki hiltzeari haiekin zer egin ez dakitenean.<sup>29</sup> Hori da Cabarcenon 2014an gertatu zena "irizpide kontserbazionistak" jarraituz bertako otso heldu guztiak tiroz hil zituztenean.<sup>30</sup>

---

**23** 'Babies were generally more appealing to visitors than adults' What animals do zoo visitors most want to see? CABI, David Simpson, 2016/07/05 <https://www.cabi.org/leisuretourism/news/25079>

**24** Un hospital para las especies marinas, El Diario Vasco, 2018/08/12 <https://www.diariovasco.com/gipuzkoa/hospital-especies-marin-as-20180812182615-nt.html>

**25** 'Nacen nueve crías de tiburón 'mustelus' en el Aquarium de San Sebastián' El Diario Vasco, 2010/12/11 <https://www.diariovasco.com/v/20101211/al-dia-local/nacen-nueve-crias-tiburon-20101211.html>

**26** EUAC <https://www.euac.org/support-membership>

**27** 'Tiburones visitan la costa guipuzcoana' El Diario Vasco, 2012/07/18 <https://www.diariovasco.com/v/20120718/al-dia-local/playas-salvo-tiburones-20120718.html>

**28** '¿Cómo se pescan los peces del Aquarium de Donostia?' 2012/07/12 Teknopolis, EITB <https://www.eitb.eus/es/videos/detalle/999147/video-como-se-pescan-peces-aquarium-donostia--teknopolis/>

**29** 'Matar animales sanos (porque no saben qué hacer con ellos) es legal en los zoos' Eldiario.es, 2018/07/20 [https://www.eldiario.es/caba-lloedenietzsche/Matar-animales-sanos-saben-nilgos\\_6\\_794830516.html](https://www.eldiario.es/caba-lloedenietzsche/Matar-animales-sanos-saben-nilgos_6_794830516.html)

**30** 'El parque de Cabárceno 'sacrifica' a tiros a todos sus lobos adultos' La Vanguardia, 2014/12/10 <https://www.lavanguardia.com/natural/20141210/54421291499/parque-de-cabarceno-sacrifica-a-tiros-a-lobos-adultos.html>

# ANIMALIEN EGOERA

Itxita bizitzeak ondorio fisiko eta psikologiko ugari sortzen dizkie animaliei zoo eta akuarioetan<sup>31 32</sup> eta arrainak ez dira horretaz libratzen, ikerketa desberdinek depresioa sufritu dezaketela baieztatzen baitute<sup>33</sup>. Donostiako Aquariumeko biologia zuzendariak, Euskal Telebistako erreportaje batean dioenez "animalia batzuk ez dira ohitzen gabibutzara, eta jateari uzten diote".<sup>34</sup>

Estereotipia edo zookosia, denbora luzez espazio mugatu batean bizitzera behartuta daudenean, estimulurik gabe eta haien jarrera normalak garatu ezinik daudenean, zenbait animaliak garatzen duten gaitza da. Etengabeko mugimendu errepikakorretan adierazten da normalean. Getxoko Aquariumean ezik, beste zentro guztietan estereotipiak zituzten animaliak aurkitu ditugu. Donostiako Aquariumean perloi arraina eta marrazoak, Miarritzeko Itsas Museoa begel arrain bat, Senda Viva hartz, gepardo eta tigrea, Basondon otsoa, El Karpinen hartz bat, Cabarcenon gepardoak eta Santillanako zoon lepahoria. Hau frogatzeko animaliak minutu luzez grabatu ditugu mugimendu estereotipatuak egiten.

Senda Viva parkean gatibu dauden hartz siriarrak hartz arre espeziekoak dira. Parkean 70 x 30 metroko espazio batean daude itxita (0.0021 km<sup>2</sup>), datu desberdinek diotenez animalia hauek naturan 24 km<sup>2</sup>-tik 8.000 km<sup>2</sup>-ko espazioa hartzen dutela.<sup>35</sup>

Cabarcenoko egoera izugarria dela salatu zuen zentroko albaitari zuzendariak 2015 eta 2017ko informean eta instalazioak egoera penagarrian zeudela adierazi zuen. Animalia ugari haien arteko borroken bitartez hil egin dira espazio komunak partekatuz behartuak izan direlako jirafak eta tigreak, besteak beste.<sup>36 37</sup>

Arrautzen zikloa azaltzeko espazio berezi bat du Sendaviva, etxekotutako animalien inguruko eremuan. Txitak arrautzatik nola ateratzen diren azaltzea da helburua, eta, horretarako, txita jaiotze berriak, egun batekoak, bikoak eta abar dituzte kaiola txiki batzuetan. Hurrei bereziki zuzendutako atal horrek, ustezko asmo didaktikoa du. Zoologikoko langile batek horrela azaltzen du azken kaiolatik zer bide egiten duten: "Anitz jaiotzen dira; beste animaliei jateko ematen dizkiegu". Donostiako Aquariumean ere adierazi digute akuario handian dauden animalia batzuk marrazoek jateko uzten dituztela bertan.

---

**31** Captivity can cause weight loss, persistent changes in baseline and integrated GCs, changes in the immune system and reproductive suppression. These effects can last for months or years in some species, indicating that some species may never truly adjust to captivity conditions." Chronic captivity stress in wild animals is highly species-specific, Clare Parker Fischer and L Michael Romero, 2019/12/04 <https://www.ncbi.nlm.nih.gov/pmc/articles/PMC6892464/>

**32** 'Vancouver Aquarium's belugas showing key signs of stress, boredom, experts say', Vancouver Sun, 2016/07/3 <https://vancouversun.com/news/local-news/repetitive-behaviour-of-vancouver-aquarium-beluga-evidence-of-madness-behaviour-specialist/>

**33** Fish Depression is not a Joke, New York Times, 2017/10/06 <https://www.nytimes.com/2017/10/16/science/depressed-fish.html>

**34** '¿Cómo se pescan los peces del Aquarium de Donostia?' 2012/07/12 Teknopolis, EITB <https://www.eitb.eus/es/videos/detalle/999147/video-como-se-pescan-peces-aquarium-donostia--teknopolis/>

**35** 'Seasonal range size in relation to reproductive strategies in brown bears *Ursus arctos*'. Journal of Animal Ecology. Dahle, B.; Swenson, J. E. (2003)

**36** 'La «desastrosa» situación del parque de Cabárceno', El Diario Vasco, 2018/05/8 <https://www.diariovasco.com/sociedad/desastrosa-situacion-parque-cabarceno-cantabria-zoo-20180508101356-nt.html>

**37** 'Otra pelea a muerte acaba con uno de los tigres de la manada de Cabárceno' El Correo, 2012/03/2 <https://www.elcorreo.com/vizcaya/20120302/mas-actualidad/sociedad/otra-pelea-muerte-acaba-201203021821.htm>

# **ONDORIOAK**

Argiak dira akuarioek eta zooek beren existentzia justifikatzeko erabiltzen dituzten errekupe-razioaren, hezkuntzaren eta ongizatearen argumentuak ez daudela ez egitate, ez frogetan oinarrituta. Animaliak ez daude ondo zainduta, zentrook ez dituzte errekupeazio lanak egiten, ez dira animaliei buruz ikasteko lekuak, eta, gainera, ez dute animalien aldeko balio etiko positiborik transmititzen.